

## **Ikastetxearen Normalizazio xedeak. Adibideak.**

Xede posibleak:

- Hezkuntza komunitateko euskal hiztun kopurua gehitzea.
- Hezkuntza komunitatearen erabilera eremuak (funtzioak), barneko nahiz kanpoko, euskaraz bideratzea eta sendotzea.
- Hezkuntza komunitateko partaideen euskararen ezagutza eta kalitatea areagotzea.
- Euskaldunon artean komunikaziorako ahozko hizkuntza, non-nahi eta beti, euskara izatea.
- Ikastetxearen sortze lana euskaraz izatea.
- Normalkuntza Programaren bidez adosten diren hizkuntza prozedurak, jarrerak eta jokabideak ikastetxe mailan bermatzea.
- Euskararen erabileraren kalitatea eta zuzentasunaren lanketa.
- Euskara gure kulturaren adierazpenaren ardatza.
- Euskara aisialdi eta gozamenerako bide izatea: euskaraz dauden kultur eta aisialdirako aukerak eta baliabideak.
- Euskararen aniztasuna eta errepertorioa: euskalkia, argota eta jatortasuna.
- Hizkuntza baliabideak ezagutzea eta lantzea: hizkuntza lan instrumentua bezala, informazio iturri bezala, eta komunikaziorako tresna bezala hobetzea.
- ...